

BASQUE.

1 X 04. HIROMI YOSHIDA: EUSKARAK BIZIRAUTEKO ERRONKA

HIROMI: Ni Hiromi Yoshida naiz. Japoniarra naiz. 1960an jaio nintzen ekainaren 28an...

OFF: Hizkuntza eta haren doinu eta erritmoa, herri baten soinu banda da. Milenioetan zehar zizelkatzen joan dena, egun entzuten dugun mintzairaraino.

OFF: BASQUE.-ren atal honetan Japonia eta Euskal Herria lotuko ditugu hizkuntzaren zubiaz. Hizkuntzaren hariaz. Eta euskaraz japonieraz bezain ondo mintzatzen den Tokioko irakasle bat ezagutuko dugu.

OFF: Gaur BASQUE.-n, Hiromi Yoshida. Hizkuntzalaria eta euskara irakasle japoniarra.

HIROMI: Hizkuntza bat edo hizkuntza batzuk desagertzea, beste alde batetik ikusta, prozesu naturala ere bada. Galtzen ari dena berreskuratzea, oso oso zaila edo ia ezinezkoa ikusten dut nik. Eta berreskuratzeko modu bakarra izango litzateke, behartzea.

OFF: Oier Aranzabal naiz eta hau BASQUE. da. Etxepare Euskal Institutuaren podcasta. Euskal kultura garaikideari begiratzeko leihoa. Atal bakoitzean euskal sortzaile baten lantokira edo etxera egiten dugu osteratxoa. Eseri eta hitz egiteko. Eta solasaldia zurekin partekatzeko.

OFF: Hiromi Yoshidarekin hitzordua Azpeitiko plazan jarri dugu.

OIER: Kaixo Hiromi, egun on!

HIROMI: Kaixo, Oier?

OIER: Bai!

HIROMI: Bueno ba. Urte askotarako.

OIER: Urte askotarako bai.

OFF: Euskal Herria zapaldu ere egin gabe euskara ikasi zuen Hiromi Yoshidak. Harrezkero etengabe etorri da Euskal Herrira. Azpeitiko euskalkiari buruzko tesia egin zuen eta, bestea beste, Linguae Vasconum Primitiae, Bernart Etxepareren liburua, euskaraz argitaratu zen

lehena, japonierara itzuli du. Hori gutxi balitz, Japonian euskaraz ikasteko metodo berri bat ere argitaratu du.

HIROMI: Nahiko etorri berri naiz. Asteazkenen edo.

OIER: Etorri eta jada lana ematen ari gatzai.

OFF: Liburutegira bidean goaz elkarrizketa egitera, eta bidean andre batzurekin hitz egiten geratu da.

OIER: Nahiko nuke zure haurtzaroa ekarri. Eta haurtzaroa aipatzen badizut, zer soinu etortzen zaizu burura?

HIROMI: Niretzako, nire haurtzaroko zarata da ibaiarena. Eta gero, uraren zarata eta bestela txoriarena... Igelena eta horrelakoena...

HIROMI: Gure herrian arroz asko landatzen da. Biztanle kopuruari dagokionez, Errenteriaren modukoa da. Baina ez du ematen hainbeste jende bizi denik. Terrenoz oso zabala da. Arroz sail asko eta mendiz inguratuta... Natura asko bai.

OIER: Hor hazi zinen zu.

HIROMI: Bai. Han jaio eta han hazi. Bai.

OFF: Herrian hazi zen baina Tokiora egin zuen bidea ikasketen aitzakiarekin.

HIROMI: Bai. Karrera egiteko Tokiora joan nintzen. Bizi ginen probintzian bazeuden unibertsitate batzuk. Baina gutxi, oso gutxi. Estatal bat eta bi pribatu edo horrelako zerbait. Eta gainera, hara joateko ere, nik bizilekuz aldatu behar nuen. Probintziako hiribururaino joan behar nuen. Orduan, gure aitak esan zidan, etxetik kanpo joan behar banuen, nahi nuen lekura joateko. Tokion neukanez nire gustuko unibertsitatea, eta hara joan nintzen.

HIROMI: Eta Tokion, gure amaren anai bat bizi zen bere familiarekin. Eta haien ondoan jarri nintzen bizitzen. Eta segurtasun handia ematen zidan horrek. Baina nahiz eta oso hiri handia izan, azkenean, zu ibiltzen zara etxetik unibertsitaterra, unibertsitatetik lagunekin nonbaitera eta gero etxera, ezta? Orduan, zona txiki batean ibiltzen zara. Eta gero garraio publikoa nahiko konplikatu da Tokion. Baina horrekin ere segituan ohitu nintzen. Segituan ikasi nuen.

OIER: Baina han zarata oso ezberdina...

HIROMI: Ah! Bai! Hori bai! Tokion agian zarata gehio. Trenarena, jendearena... Zarata gehiago bai.

OIER: Burrunba horretan, Tokion, etxetik unibertsitatera eta unibertsitatetik etxera, euskararekin egin zuen topo.

HIROMI: Filologia Ingelesa ikasten hasi nintzen. Eta bigarrenengo hautazko hizkuntza atzerritar bezala alemaniera. Eta ez dakit nola, baina, gogoaz sartu zitzaidan ohikoa ez den hizkuntza bat ikasteko. Aukera asko zeuden. Eta niretzako aukera polit bat zen, ainuera izeneko hizkuntza aukeratzea. Japonia iparraldean dago Hokaido izeneko irla handia. Betidanik han bizi izan den jendea da. Ainu izeneko jendea. Eta beraien hizkuntzari ainuera deituko diogu orain, bai? Eta hizkuntza hori ikastea ere aukera oso polita zen. Nire inguruan bazegoen hainbat jende hizkuntza hori ikasten ari zena. Horregatik beste bat bilatu nahiago nuen. Unibertsitate hartan bazen emakumezko linguista bat Suzuko Tamura izenekoa. Euskal Herrian ere nahiko ezaguna zen. Eta berak proposatu zigun euskara ikasteko taldetxo bat osatu nahi zuela. Baina ez asignatura gisa, bere borondatez egin nahi zuen. Bildu ginen bost edo sei lagun, ni neska bakarra nintzen, eta gure artean ere oso ondo konpontzen ginen. Eta Suzukoren klasea oso interesgarria zen. Eta orduan asko gustatu zitzaigun, eta jarraitu nuen.

HIROMI: Gramatika bai. Dezente ikasi nuen. Baina hitz egiten-eta, ez nekien. Eta entzumena ere landu gabe nuen. Eta hobeto ikasteko, pentsatu nuen Euskal Herrira etortzea.

OIER: Hor salto bat dago.

HIROMI: Bai.

OIER: Jolasetik harago.

HIROMI: Beno, jolasik ez. Serio ari ginen eh!

HIROMI: Esan nahi nuen, ez asignatura bezala. Suzukok ez zigun inoiz lanik eskatzen. Berak nahi zuelako ematen zuen eskola. Berak euskara ez ahazteko. Horrela erabaki nuen Euskal Herrira etortzea eta Lazkaora joan nintzen barnetegira. Eta han 14 hilabete eman nituen. Eta geroztik jarraitzen dut euskararekin. Jada 30 urte pasa dira ordutik eta Euskal Herrian lagun asko egin ditut eta hori da nire altxorra.

OFF: Euskararen amuari kosk eginda, Hiromi Yoshidak master amaierako lana euskararen inguruan egin zuen, euskalki baten inguruan, Azpeitieraren inguruan.

HIROMI: Euskalkia da euskararen dialektoa. Klasifikazio handia egiten baldin baduzu, Bizkaiera, Gipuzkera, Lapurtera, Goi nafarrera, Behe nafarrera eta Zuberotarra. Baina haien barruan ere, azpi euskalki pila bat daude. Herriz herri aldatzen da. Niretzako euskalkiak ahozko hizkuntza bizi bizia ziren eta horregatik euskalki bat nahi nuen aztergai bezala.

OIER: Japonian non irakasten duzue euskara? Zer lekutan ikasi daiteke?

HIROMI: Tokyon, Waseda izeneko unibertsitatean, lehenengo maila eta bigarren maila daukagu. Eta gero, Osakako unibertsitatean, unibertsitate estatala. Osakara joaten naiz urtean bi alditan: neguan eta udaran. Ni Tokyon bizi naiz, beraz, Osakara astero astero joatea ezinezkoa zait. Proposatu zidaten neguan eta udaran, urtean bitan, hiru eguneko ikastaro trinkoa ematea. Eta gero Tokyon dago TUFs izeneko unibertsitatea, Etxepare Euskal Institutuarekin harremanduta dagoena.

OIER: Bai

HIROMI: Bai. Nik hor ere ematen nuen lehen euskara. Baina hor epe bat zegoen. Nik bost urte eman nituen, eta orain jada ez dut ematen. Baina unibertsitate honek badauka akademia bat herritarrentzako, ez unibertsitarioentzako, edozeinentzako. Eta hor ere ematen dut euskara. Online bidez.

OIER: Nolako jendea apuntatzen da euskara ikastera?

HIROMI: Ba, nire klasera motibo askorengatik etortzen dira. Batek aipatzen du futbola. Izan ere, Japonian liga espainiarra asko gustatzen da. Futbol zaleak dira, ezta? Baina hasieran ez zuten ezagutzen Real eta Athletic eta... Baina gero konturatu ziren euskal derbia delakoa dagoela. Eta hortik ezagutzen hasten dira Euskal Herria eta bertan beste hizkuntza bat hitz egiten dela. Eta beste batzuk gastronomia ere aipatzen dute.

OIER: Janaria.

HIROMI: Janaria. Bai, orain dela hiruzpalau urte Basque 'cheesecake' delakoa azaldu zen eta arrakasta handia lortu zuen. Gazta tarta, ezta? Donostiako 'La Viña'-ko errezeta omen da, eta geroztik bat-batean zabaldu zen 'Basque' izena. Eta gero noski interes linguistikoengatik ere etortzen dira niregana.

OIER: Futbola, Basque cheesecake eta interes linguistikoa.

HIROMI: Bai, momentuz bai. Beno, bakar batzuk musika ere aipatzen dute eh! Adibidez, ikasle bat neukan Fermin Muguruza asko gustatzen zaiona.

OIER: A bai?

HIROMI: Bai, bai. Izan ere, Fermin Japonian izanda dago hainbat aldiz. Eta neska hura joaten omen zen entzutera.

OIER: Eta ikasten dute euskara?

HIROMI: Bueno... Ikasten hasten dira. Baina jarraitzea oso zaila da. Zeren lehen mailarekin jada amaitzen dugu. Jarraitzekotan beste bide bat bilatu behar dute. Baina nik uste dut nahi baldin badute, gaur egun Internetekin, modu asko daudela ikasteko. Baina gure garaian ez. Ez zegoen Internetik. Orain gazte jendeak tresna asko dauzka. Euskara edo beste hizkuntzak ikasteko.

OIER: Nola ikusten duzu euskararen egoera gaur egun?

HIROMI: Ba ni nahiko pesimista naiz. Nahiko ezkorra naiz, eh!

OIER: Bai? Zergatik?

HIROMI: Zergatik? Ba euskararen erabileragatik. Adibidez, zifrek esaten dute orain hiztun gehiago daudela. Gu hasi ginenean euskaraz ikasten, 1982an edo... Orduan esaten zuten euskara dakitenak miloi erdia edo zirela. Milioi t'erdi ez, eh! Milioi erdi.

OIER: Bostehun mila.

HIROMI: Askoz gehiago omen daude orain. Hori miraria da. Hainbeste ugaritzea. Milagroa iruditzen zait. Bai, jakin badakite. Baina erabili? Ez dute erabiltzen. Egoera hori negargarria edo penagarria, edo kezkatzekoa da. Hizkuntza bat erabili behar da biziraun dezan.

HIROMI: Hizkuntza batzuk desagertzea, beste alde batetik begiratuta, prozesu naturala ere bada. Galtzen ari dena berreskuratzea, oso oso zaila edo ia ezinezkoa ikusten dut nik. Eta berreskuratzeke modu bakarra izango litzateke behartzea. Legez behartzea. Francoren garaian Euskal Herrian espainolarekin egin zuten bezala. Baina gaur egun ezinezkoa da hori egitea. Legez derrigortuta ere, zigorrik gabe, ez du funtzionatuko. Bi hizkuntza ofizial ezta? Gaztelera eta euskara.

OIER: Eta frantsesa ere bai.

HIROMI: Iparraldean, bai. Eta legean horrela jartzen du. Eta hala ere, hiztun gutxiago dituen hizkuntza beti pixka bat baztertuta geldituko da. Diglosia da gizarte batean bi hizkuntza batera egotea, ezta? Hori da diglosia.

OIER: Baina inoiz ez da simetrikoa.

HIROMI: Ez. Inoiz ez. Hori inoiz ez. Eman dezagun, adibidez, Euskal Herria diglosian da. Eta badago gaztelera eta euskara, ezta?

OIER: Bai.

HIROMI: Egoera honetan, euskararentzako diglosia da euskara desagertzeko prozesua.

OIER: Hori da diglosia?

HIROMI: Alde batetik ikusita bai. Ez baldin badago oreka. Behar den bezalako orekarik ez baldin badago, hiztun gutxiago daukana oso oso bide zailean dago.

OIER: Ezkorra zara zu?

HIROMI: Bai. Oso. Ikusten dudalako Japonian Ainueraren egoera. Urte batzuk dira azken hiztuna hil zela. Hori aurrez aurre ikusi dugu.

OIER: Zer egin behar du hizkuntza txiki batek mundu globalizatu honetan bizirik ateratzeko?

HIROMI: Joe... Galdera zaila, eh! Ba beharrezkoena da eta oinarritzkoena, zuen artean etengabe erabiltzea. Hortikan hasi behar da. Gero hizkuntza horrekin egindako literatur obrak, musika eta nahi dituzuenak... Mundura eramango dituzue. Horretarako diru laguntza ere egongo da. Baina oinarritzko oinarritzkoena da zuen artean etengabe, etengabe, etengabe, edozer momentutan, edozein lekutan, den dena euskaraz egitea. Hortik hasi behar gara. Pentsatzen dut.

OIER: Hori da aholku nagusia.

HIROMI: Bai bai.

OIER: Erabili.

HIROMI: Bai bai. Bai. Baina benetan, eh! Adibidez, goizean euskaraz egin dut eta arratsaldean beste batekin erderaz jardun dut. Hori ez, eh! Beno, pertsona horrek ez baldin badaki

euskaraz, orduan ez dauka erremediorik. Baino bestela, euskaldunon artean, beti beti beti, beti, edozer momentutan, edozein lekutan, beti, etengabe, bai...

OIER: Eskerrik asko elkarrizketa eskaintzeagatik.

HIROMI: Bai. Eskerrik asko zuri. Baino ez dakit eh... Ez dakit ondo atera den eh...

OIER: Gaizki atera al da?

HIROMI: Ez dakit ez dakit...

OIER: Gaizki atera al da?

HIROMI: Zuk esango didazu hori!

OIER: Polita atera da.

BASQUE. Ulu Mediak Etxepare Euskal Institutuentzat ekoizten duen podcasta da.

Oier Aranzabal da proiektuaren zuzendaria eta soinu diseinatzailea. Cristina Tapia Huici da ekoizlea. BASQUE. gustatu bazaizu partekatu eta jarrai gaitzazu edozein audio plataformatan. Euskal kulturari eta sormenari buruzko istorio gehiago aurkituko dituzu basqueculture.eus webgunean eta etxepare.eus-en.

Eskerrik asko entzuteagatik. Hurrengo atalean entzungo dugu elkar!